



Euskal herri ekologistago, euskaldunago eta solidarioago baten alde

Euskoa, nik ere bai!

Europako lehen tokiko moneta
2,5 milioi eusko zirkulazioan
(1 € = 1 eusko)
4.000 erabiltzaile partikular
1.200 profesional
29 Herriko Etxe + Euskal Hirigune
Elkargoa Eusko kide



Euskal Herriko moneta

euskokart euskopay

**IREKI EUSKO KONTUA
5 MINUTUZ
euskalmoneta.org**



Zergatik erabili Euskal

Ekonomiaren birkokatzeke

Berehala lurraldean utzi eta finantza merkatuetan buka dezakeen Euroa ez bezala, Euskoa Ipar Euskal Herriko ekonomia errealean ibiliko da eta tokiko enplegua sustatuko du.

Trantsizio ekologikoaren zalutzeke

Tokiko monetak zirkuitu laburrak garatzen ditu, eta Euskoren araudi nagusiak baztertzen ditu ekologia mailan arduratsuak ez diren jardunbideak. Euskoz aldatu dituzun euroak banku etiko eta solidarioetako berme-funtsetan uzten dira: Crédit Coopératif eta Nef. Banku hauek jendarte eta ingurumen arloko proiektuak diruztatzen dituzte.

Euskararen biziarazteke

Eusko sarean sartzeko euskal hiztuna izatea beharrezkoa ez bada ere, euskararen biziaraztea da gure oinarriko baloreetarik bat. Profesionalei bi desafio proposatzen zaizkie: euskarazko harrera edo afixaketa elebiduna.

Euskoarekin, gure esku har dezagun !



Herriko moneta?

1 eusko = 1 €



Euskoz egin dituzun erosketek zure elkarte diruztatzen dute!

Egin duzun trukearen % 3 zuk hautatu elkarte bati ematen dio Euskok!

Kidetzear, babestuko duzun elkarte bat hautatzen ahal duzu. Elkarte honek 30 babesle lortuko dituelarik, babesleek urtean egin trukearen % 3ko dohaintza emanen dio Euskok.

Jadanik 130.000 eusko baino gehiago banatu zaizkie 60 bat elkarteri!



Cordeliers karrika, 20 - 64100 Baiona
05 33 47 54 11 - info@euskalmoneta.org



Diseinua eta inprimatzea: risoornnothing.com
Ez bota lurrera
© Bertrand Lanneau © Isabelle Miquelstorena

Eusko kontu bat irekitzen dut

Tokiko monetaren erabiltzeko, aski da kide izatea (hilabetean 2 €). Joan www.euskalmoneta.org webgunera, klik egin «Kide bilakatu» atalean eta segi jarraibideak. RIB eta nortasun agiria besterik ez dituzu behar.

Euroak euskotan aldatzen ditut

Zure Eusko kontua berehala karga ezazu, zure banku txartelarekin, eta gasturik gabe! Joan moncompte.euskalmoneta.org/eu webgunera, klik egin "Trukea" atalean, eta, gero, "Créditer mon compte" laukian. Truke automatikoa hilabeteko 10. egunean egiten da. Zenbatekoa edozein momentutan alda dezakezu zure Eusko kontutik.

Sareko profesionalak begiztatzen ditut

Gure 7 eskualde-aurkitegiei edo lineako aurkitegiari esker (gure webgunean deskargatzekoak), Eusko kide diren 1.200 profesionalak ezagutu.

Tokiko monetan ordaintzen dut

euskopay ordainketa-aplikazioa aterabide praktikoa da: QR kodea eskaneatu, zenbatekoa sartu, baieztatu, eta ordaindua da!

euskokart euskoz ordaintzeko banku txartela.

Eusko billeteen eskuratzeko, joan zaitez gure 30 aldaguneetarik batera! Haven zerrenda gure webgunean dago, "partikularrak" atalean. Han, zure Eusko kontutik kenduko diren billeteak jaso edo txeke edo diruaren kontra truka ditzakezu.

Profesionalek zure euskoak berrerabiltzen dituzte, eta Ipar Euskal Herrian zirkulatzen jarraitzen dute!

Eusko kide izan zaitezke konturik ireki gabe ere: horretarako, joan zaitez aldagune batera!

Nola eusko erabili ?